

EUSKORRO

ehbildu

- Indarberritze aro berri bat irekitzeko **hizkuntza-politika berria**

*Euskara berdintasunean,
eskubide osoz eta
plaza guztietan.*

Aurkibidea

1.	Proposamenaren kokapen politikoa.....	3
2.	Egoeraren analisia	6
2.1	Hizkuntza komunitatearen barne indar eta ahulguneak.....	6
2.2	Orain arteko hizkuntza-politikaren agortzea.....	7
2.3	Kanpoko indar eragile indartsu eta askotarikoak	8
2.4	Hizkuntza auzi politikoa da: zeharlerrotasuna estrategikoa da.....	9
2.5	Hizkuntza politika berri baterako gogoia eta herri-akordiorako lana	10
2.6	Diagnostikoaren laburpena	11
3.	Hizkuntza politika berriaren marko estrategikoa	13
3.1	Euskara da euskal herritarren hizkuntza nazionala.....	13
3.2	Hizkuntza-politikaren oinarriak eta printzipio-gidariak.....	13
3.3	Kontuan hartu beharreko ardatz eta gako berriak.....	14
3.4	Marko mentalaren aldaketa: konbentzimendu zaharrak deseraiki eta berriak eraiki.....	16
4.	Hizkuntza politika berriaren herri erronkak eta norabidetzea.....	17
H.E. 1:	Ezagutzaren hedapen unibertsalean aurrera egin eta hizkuntza-gaitasuna handitu	17
H.E.2:	Plaza berriak sortu eta hiztunak trinkotu	19
H.E.3:	Ekosistemaren elikadura izango den hizkuntza-azpiegitura berria eraiki	20
H.E.4:	Motibazioa, atxikimendua eta euskararen aldeko kontzientzia indartu	21
H.E.5:	Gure hizkuntza nazionalarentzat estatus juridiko berria	23
5.	Hizkuntza-politika berria gobernatzeko irizpideak	25

1. Proposamenaren kokapen politikoa

Euskal Herria Bilduren III. Kongresuan onartutako ponentzia politikoan jasota dago euskararen biziberritze prozesua geldotze aro batean sartua dagoelako ideia. Ez da diagnostiko berria. Azken urteetako azterketa soziolinguistiko guztiek horixe azpimarratu dute behin eta berriro eta euskararen inguruan ari den edonork baieztatu dezakeen sentsazioa ez ezik, ebidentzia da: 60ko hamarkadan hasi eta ia berrogeita hamar urtez luzatu den bulkada politiko sozialak, indarberritze prozesu indartsu eta beste hizkuntza gutxiagotu askorentzako eredugarria izan denak, agortze zantzu garbiak ditu.

Agortze horren zergatiak bilatzean, ikuspegia zabaltzea gomendagarria da. Eta, gutxienez, hiru motatako arrazoiak aurki daitezke ulertzeko nola honaino ekarri gaituen lan eskergak ez digun askoz urrunago joaten utziko.

Alde batetik, hizkuntzaren aldeko borrokari eutsi dion belaunaldi baten ordezkapena aipa daiteke. Gizartea aldatu da, lehentasunak ere bai. Munduaren bisioak, ideologiak eta kolektibotasunak ez dute lehen zeukaten indar kohesionatzailea. Indibidualismoak geroz eta indar handiagoa du eta horrek zaildu egiten ditu enpresa komunitarioak. Eta euskararen aldeko borrokak asko zor dio komunitatearen baitako bizi indarrari. Bestetik, gizarte gero eta globalizatuago baten eragin askotarikoen menpe bizi gara, zuzenean hizkuntza gutxiagotuei eragiten dietenak, hizkuntza hegemonikoei baino askoz gehiago. Hirugarrenik, adostasun politiko eta sozial zabalak lortzeko eta hizkuntzari zentraltasuna aitortzeko ezintasunak.

Euskalgintzak aspaldian piztu zituen alarma gorriak, eta gabezia nagusiak identifikatu: euskara hegemonikoa zeneko espazioak ahultzen eta, are, desagertzen joan dira; erabileraren bilakaera neurtzen duen kurbaren horizontalizazioak erakusten du jarrera proaktibo etengabea ez dela nahikoa; garapen normatibo eta politikoa ukatzen duen banaketa administratibo eta politikoak etengabeko mugak eta oztopoak ezartzen dizkigu aurrerapausoak emateko. Horrez gain, euskararen estatusaren eta euskaldunon hizkuntza eskubideen aurkako oldarraldi ideologiko, politiko eta judiziala, egiturazkoa dena, areagotu egin da, eta euskararen normalizazio prozesuak behar dituen XXI. mendeko hizkuntza-politikak zapuztea du helburu.

Egia da ezagutza neurtzen duten adierazleek frogatzen dutela asko aurreratu dela, eta gaur egun hizkuntza-politika bultzatzeko erabiltzen diren baliabide eta egitura publiko zein sozialari esker, baldintza eta oinarri hobeak dauzkagula lehen baino, baina begi bistakoa da, datu guztiek diote, gaitasunean, erabileran eta hizkuntz identitatearen eraikuntzan motelaldia ematen ari dela. Are gehiago: azken ikerketek azpimarratu dute ezer erradikala egin ezean, orain arte egin ez den zerbait ez bada egiten, geldialdia atzeraldi bilakatuko dela.

Egoeraren diagnostiko zehatzak, beraz, euskararen normalizazio-prozesuan eskala handiko eraldaketa eraikitzea eskatzen du: urratsak ez baizik jauziak eragin behar ditugu datorren hamarraldiko erronken aurrean euskararen biziberritze prozesuan aurrera egin dezagun. Horregatik, EH Bildurentzat lehentasunezko erronka da urrats horiek egiteko beharrezkoak diren hizkuntza-politika integralak sustatu eta gauzatzea.

Bide honetan, uste dugu garrantzitsua dela hiru aldagai hauek kontuan izatea:

- a. Hizkuntza-politika gidatu izan duen markoaren arabera, euskararen ezagutza eta erabilera baxuagoaren arteko aldea euskaldunon kontzientzia eta atxikimendu faltak eragiten du, eta erabileran jarri izan da foko eta arreta nagusia, euskara gutxi erabiltzen delako ikuskera eta marko mentala nagusituz. Euskaingintzak auzitan jarri izan du, askotan, ikuskera hori, eta Txillardegik berak ohartarazi zigun ezagutzaren eta erabileraren arteko harremana uste baino korapilatsuagoa dela. Azken ikerketek gaitasunean jarri dute arreta eta iradoki dute hizkuntza konpetentzia (gauza bat baita euskara ezagutzea eta beste bat erraz moldatzea) eta hizkuntza erabiltzeko aukerak gurutzatuz gero, euskararen erabilera altua dela. Horrek adierazten du hizkuntzarekiko atxikimendu eta kontzientzia handiko komunitatea dugula: aukera dugunean, euskaldunok geure hizkuntza erabiltzen dugu. Motibazio eta kontzientzia hori elikatzen jarraitu behar dugu. Ikuspegi honek politika publikoak berriz pentsatu eta lehentasunak zehaztea eskatzen du. Adierazten du estrategikoa dela hizkuntzarentzat espazioak sortzea, espazio sozio-funtzional eta tokikoak: hizkuntza erabiltzeko aukera eskaini behar zaio hiztunari.
- b. Gizarte kulturalki askotarikoagora eta teknologizatuetara goaz zuzen zuzenean. Hizkuntzarekiko atxikimendua, komunitate sena eta erreproduzio sistemak berritzeko baldintzak oso azkar eta etengabe aldatzen ari dira geure begi aurrean. Aldaketa sozialak eta hizkuntzen bilakaera ere bizi-bizi doaz. Horrek esan nahi du hemen ere, trantsizio ekosozialean bezala, denbora gure kontra doala. Hizkuntza hegemonikoen aldeko inertziak geroz eta indartsuagoak dira. Garai berri hauetarako, Euskara Batua sorrerak izan zuen eragin eraldatzailearen pareko zerbeit behar dugu. Adimen artifizialaren garairako, euskararen azpiegitura teknolinguistiko berria edo "Arantzazu berria" zein izango den edo nola egingo dugun pentsatzea dagokigu. Behar beharrezkoa dugu aktibatuko gaituen proiektu motibatzaile indartsua, gizarte gero eta konplexuagoa izango delako gurea eta milaka herritar etorriko direlako hurrengo urteetan gurekin bizi eta lan egitera. Inork ez du bere jaioterria abandonatzen, beharrezkoa ez badu. Eta kontuan hartu behar da etorriko direla euren jaioterrietatik alde egin behar izan dutelako. Eta etorriko dira, gainera, gure herriak behar dituelako. Euskara haientzako bidaide egin beharko dugu, bizitza hobe bat eraikitzeko bidelagun, tresna moderno eta gaitua. Horretarako, hizkuntzari berdintasunezko aterpe bat eman behar diogu. Arlo orotan, berdintasun erreala. Hizkuntza eskubideen babesaren paradigmari euskara hizkuntza nazional eta egituratzailearen izaera gehitu behar diogu. Berdintasunaren, askatasunaren, justiziaren eta kohesio sozialaren balioetan oinarrituko dugu gure hizkuntza-politika.
- c. Azkenik, hau guztia erasoaldi judizial, mediatiko eta politiko baten erdian gertatzen ari da. Nafarroan egiturazkoa da egoera hau, hamarkadak daramatzagu euskararentzako aterpe juridiko egokia gabe. EAEn orain arte inork zalantzan jartzen ez zituen adostasunak ezbaian jartzen hasi dira (hizkuntza eskakizunak enplegu publikoan, esaterako), eta euskarari arkitektura araugile berritua emateko ariketak zapuzten ari dira (EAeko Udal Legea). Euskararen balio instrumental eta soziala gutxiesteko marko ideologiko jakin bat etengabe elikatzen ari da hainbat esparru komunikatibo eta politikotan. Talentua erakartzeko euskara zailtasun iturri dela zabaltzen ari dira, eta euskararen aldeko politikak inposatzaileak direla. Euskararen eta profesional teknikoaren arteko dilema dagoela, eta euskara eta lan eskubideen artean, berriz, talka. Euskararekiko eta euskaldunekiko ikuspegi supremazistak eta epe ertain-luzeko estrategia politiko elektoralak antzeman daitezke, etorkizuneko elikagai diskurtsibo bihurtu eta euskararen kontrako segmentuak puzten joateko. Honen guztiaren oinarrian dago Espainiako Konstituzioak berak gaztelaniaren eta euskararen artean ezartzen duen hizkuntza-hierarkia eta ezberdintasuna. Era berean falta zaigu Europako estatu hizkuntza ofizialen berdintasuna, simetria eta ekitatea. Europako Batasuneko herrialde gehienek ezarriak dituzte hizkuntza ofizialen eskakizunak gutxieneko eskubideak izateko.

Honenbestez eta aipatutako testuinguruan, eta III. Kongresuan onartutako mandatuari jarraikiz, euskararen normalizazio prozesuan aro eraldatzailea irekitzeko hizkuntza-politika berriaren oinarriak jartzen hasi behar dugu. Euskararen biziberritze-prozesuaren bigarren eraldaketa handia eskatzen du egoerak eta horrek ere ezinbestean joan beharko du arnasberritze nazional baten eskutik, elkar elikatuz eta elkar lagunduz. Hizkuntza eraldaketa berriak arnasberritze nazionalaren hauspoa behar du, eta euskararen biziberritze prozesuaren indarraldia ere arnasberritze nazionalaren erregaia izango da.

Eraldaketa hau jakituria handiz, pragmatismo eraldatzailez eta zorrotasunez egin behar dugu, adostasunak eraikiz. Baina, batez ere eta bereziki, anbizio handiz. Anbizio handiz, euskararen normalizazio prozesua beste estadio batera eramateko. Alegia, politika publiko eraldatzaileak, egitura berriak eta estatus juridiko berriak gure hizkuntza nazionalarentzat.

Orain da unea.

2. Egoeraren analisia

2.1 Hizkuntza komunitatearen barne indar eta ahulguneak

Azken ia berrogei urteotan, eskolari eta irakaskuntzaren indar sozializatzaileari eman zaio erabateko lehentasuna hizkuntza-politikaren diseinuan. Hala behar zuen, eta emaitzak ikusgarriak izan dira: gaur egun, EAEn, hamarretik zazpi ikaslek murgiltze ereduaren ikasten dute, euskaraz beraz. 16tik beherakoen artean, inoiz baino gehiago dira euskara ezagutu eta euskaraz hitz egiten dutenak.

Egoera askoz okerragoa dugu Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, ezaguna da, eta kezkarako motiboa da lurralde hauetan egoera aldatzeko dauden ezintasun politikoak eta sozialak. Eta, hala eta guztiz ere, ekimen sozialari esker, aurrerapausoak egin dira han eta hemen, Iruñerrian eta Nafarroako beste esparruetan euskarazko irakaskuntzaren zabalpenari esker lortu direnak, kasu. Nafarroan euskararen ezagutza % 16,9koa izatetik % 24,9 izatera pasa da hogeit hamar urtean, eta ia % 40koa da 16-24 urtekoen artean. Ikerketa berriek diote lurralde honetan gehiengoak hizkuntza sustatzearen aldekoa dela eta begi onez ikusiko lukeela euskara ikasteko aukerak zabaltzea, edo ikasle guztiek euskararekin gutxieneko harremana izatea. Aukerak daude aurrerapauso horietan sakontzeko, irakaskuntzan bereziki.

Motibazioa eta atxikimendua ere indartsu daudela diote datuek, hizkuntza transmisioa bezala. Euskaldunek euskaraz egiten dute aukera egokiak dituztenean, eta euskara sustatu eta espazio berriak lortzeko borondate agerikoa da herritarren artean. Euskarak asko irabazi du azken hamarkadetan eta, orain arteko ibilbidearen ostean, askoz gehiago irabazi behar dugu, ez soilik datorrenari aurre egiteko, baita herri hau eraikitze ere.

Baina gaitasuna ez dator bat ezagutzarekin, esanda dago. Aurrerapauso handiak egin dira euskara edozein testuingurutan erabilia izateko, eta inoizko hizkuntza prestakuntza handiena dute euskaldunek zientzian, teknologian, legedian edo kultur sorkuntzan. Hizkuntza bera gaitua dago adimen artifizialaren erronkei heltzeko, eta erregistro asko irabazi ditu hizkuntzaren corpusak, eta irabaziko ditu. Indargune bat dugu hor. Baina gazte askok, eskolaldia amaituta eta lan munduan lanean hasterako, edo sozializazioan euskaraz murgiltzeko, zailtasunak dituzte. Eskolak ez dizkie hizkuntza bizi eta adierazkorrez jabetzeko tresna guztiak eman, besteak beste eskolak bakarrik ezin duelako, eta testuinguru soziolinguistikoak ere ez du laguntzen: gehienak eremu nagusiki erdaldunetan bizi dira. Hezkuntza ereduaren sistemak aldaketa sakonak behar ditu egoera honi erantzuteko eta helduen euskalduntzeak ere egokitzapenak exijitzen ditu euskaldun osoak sortu eta erabileran eragiteko.

Azken berrogei urteotan egin den lanak hizkuntzaren aldeko azpiegitura indartsua eraiki du. Baina, askotan, zailtasunak egon dira diskurtso komunak eraikitze, eta kontrajarri egin da egituratze instituzionala eta sare sozial euskaltzalea. Urruntzeak bezala hurbilpenak ere egon dira azken urteotan, eta gaur da eguna non ia alde guztiek onartzen duten osagarriak izan behar direla ahaleginak. Inoren lana eta eskarmentua ez dagoela sobera aurrean ditugun desafioentzat.

Hemen azpimarratu behar da udal eta eskualdeetan egin den eta egiten ari den lana. Ekimen sozialaren bultzadaz eta euskara taldeen eta teknikarien bitartez, benetako hizkuntza-politika hurbila, eraginkorra eta aktiboa egin da toki batzuetan, eta horren ondorioak nabariak dira lan hori urteotan sustatu den inguruneetan.

Behar-beharrezkoa dugu sare horiek elikatu, sustatu eta boteretzea. Eskualdearen ikuspegitik heldu behar diogu erronka honi, begi bistakoa delako eskualdeburuen garrantzia hizkuntza politiko aktiboak eta eragin-korrek abiatzeko.

Baina gizartea mobilizatzeko zailtasunak daude, eta euskalgintzan ere antzeman da gihar galera bat. Aktibazio soziala behar da.

Arlo honetan, berebiziko garrantzia dute hainbat eragilek sustatu dituzten dinamikek. Kontseiluak lortu du oldarraldia edo larrialdi linguistikoa bezalako kontzeptuak zabaldu eta gizarteratzea, eta piztu egin dira erre-sorta asko: mobilizazio eta aktibazio gogoia dago. Sua nola irazeki asmatu behar da.

Eta ez da erraza izango, gure balio sistema eta komunitate sena erreproduzitzeko orain arte nagusi izan diren gizarte interakzioak eta sozializazio eta komunikazio paradigmatikak (hezkuntza, familia, ingurune hurbila...) eraldaketa betean daudelako gaur egun eta gure gizarte egituretan ere (komunitategintza, mugimendu sozialak, alderdiak...) sakoneko transformazioak gertatzen ari direlako. Abiadura eta kontsumo azkarraren gizartea besarkatu dugu eta iraultza teknologiko berrian murgilduta gaude. Gainera, adimen artifiziala inpaktu handiko bektorea da eta izango da, aurreko faktore guztiak bizkortuko dituena.

Testuinguru honetan, geurea bezalako estaturik gabeko nazio eta komunitate nazionalen identitate komunitarioa erreproduzitzea zailagoa eta konplexuagoa suertatzen zaie eta erronka handiak ditugu horretarako giltzarriak diren eremuetan, hala euskararen biziberritzean, nola kulturaren sorkuntza eta transmisioan eta komunikazio esparru autozentratu baten eraketan.

Honen guztiaren eraginak zuzenki kolpatzen du euskararen biziberritzea, kultur sistema eta komunikazio esparrua. Era berean, paradoxa batean kokatzen gaitu: testuinguru global, azkar eta atomizatu honetan, euskara, kultura eta identitate komunitarioa lokailu bihurtu dezakegu, eskuartean ditugun herri erronkei erantzuteko legamia estrategikoa. Eta, nolana den, azpimarratu behar dugu egoeraren zailtasunez gain, aukerak badaudela, eskura eta presente ditugulako euskal komunitatearen konpromisoa, gaitasuna eta bulkada berri-tzailea.

2.2 Orain arteko hizkuntza-politikaren agortzea

EAEko azken hamarkadetako politikak ez dira nahikoak izan. Ez dute hiztun komunitatearen bilakaerak eskatzen zuen eraginkortasuna izan. Berrogei urtetako hizkuntza-politika batek egin zezakeen bidea ez dute ibili. EAEko euskararen legearen aukerak ez dira behar bezala baliatu. Gizartea, gainera, asko aldatu da. Gaurkotze handia behar du legeak.

Nafarroan, marko juridiko murrizaren irakurketa are murrizagoen bidez, gutxiagotze instituzional etengabea eragin duen hizkuntza-politika garatu da. Euskararen ofizialtasunaren zonifikazioak hizkuntza eskubideen urraketa mingarria eragin du, hiru mailatako hiztunak sortuz.

Gainera, Euskal Herrian nagusi izan diren hizkuntza politiken oinarrian arrazionaltasun neoliberala nagusitu da. Ikuspegi horren arabera, herritarrok nahi dugun hizkuntza baliatu dezakegu nahi dugun unean nahi dugun orotan, libreki eta geure kasa, kanpo baldintzapenik gabe. Norbanakoengan jarri da, horrela, hizkuntza normalizazioaren nondik norakoaren zama eta ardura nagusia. Horrek, noski, hizkuntza normalizazio prozesua bultzatzeko politika publikoen esku-hartzea edo esku-hartze horren eraginkortasuna gutxiestea ekarri du.

Ildo beretik, Euskal Herrian eraiki den euskararen aldeko hizkuntza-politikak bi hiztun talde bereizi ditu, euskaldunak eta erdaldunak, eta bakoitzari bere eskubideak eta bere aukerak aitortu dizkio, hizkuntza-aska-

tasunaren eta gutxiengoaren babesaren logikan oinarrituta. Ikuspegi horren ezpalekoa da hezkuntzan ezarri den ereduaren araberrako banaketa-sistema. Urteetako bilakaerak eta soziolinguistika arloko ezagutzak erakutsi dute, ordea, hori ez dela nahikoa erdaren hegemonia gaintitu, euskararen normalizazioa bultzatu eta kohezioan aurrera egiteko.

Hizkuntza-politikak tresna eta baliabide ezberdinak ditu bere helburuak lortzeko: hizkuntza-praktiken sustapena, baliabide ekonomikoak, araudia, komunikazioa... Aurrez aipatutako oinarrien logikan, euskararen aldeko hizkuntza politikan sustapena izan da baliatu izan den tresna behinena. Baina politika publikoetako beste edozein arlorekin alderatuta, araudiaren tresneria baliatzeko konplexu gehien izan dituen eremua izan da hizkuntza-politikarena. Ondorioz, ez gara gai izan euskaldunon hizkuntza eskubideen bermerako beharrezko marko juridiko eraginkorra eraikitzeke.

Beste maila instituzionalean, aldiz, esaterako udalerrri euskaldunetan, UEMaren bultzadaz urrats interesgarri bezain eraginkorrak egin dira normalizazio-prozesua bizkortzeko eta EAEko Udal Legeak ireki zuen bide estrategikoari esker udal administrazioan euskarari lehentasunezko espazioa emateko eta ohiko zerbitzu eta lan-hizkuntza bihurtzeko.

2.3 Kanpoko indar eragile indartsu eta askotarikoak

Barneko egoera konplexuari hizkuntzatik kanpoko eragileen indar dibergenteak gehitu behar zaizkio, indartsuak baitira oso: erdararen eta, batez ere, ingelesaren presentzia gero eta handiagoa da aisialdian, ikus-entzunezkoetan eta sare sozialetan eta, oro har, hizkuntza minorizatuen kontrakoa da testuinguru globala. Eta oraindik ez gara gai neurtzeko gurera bizi eta lan egitera etorri diren eta etorriko diren pertsona guztien inpaktuari nolakotasuna hizkuntza ohituretan. Aurreikuspenek diote urtero 20.000-25.000 lagun iritsiko direla gurekin lan egitera eta bizitzera, eta asko eta asko ez da hezkuntza formaletik pasako. Nafarroan eskolatzen diren hiru ikasle berritik bat atzerrian jaiotakoa da. Katalunian, esaterako, hemen baino hamar aldiz pertsona gehiago ari dira iristen urtero, eta badira, honezkerok, hizkuntzarentzako neurri zorrotzak eskatzen ari diren ahotsak. Diskurtso eraginkor eta sinesgarriak eraiki beharko ditugu komunitatearen aldeko diskurtsoetan euskara txertatzeko eta ibilbide sozialean bidaide tresna izan daitekeela ikusarazteko, migranteen kontrako jarrerari aurre egiteko pronto, kohezio soziala helburu.

Gizartea aldatu da gainera, aldatzen ari da, eta gero eta gehiago eta azkarrago aldatuko da hurrengo urteetan. Gizarte geroz eta pluralagoetan biziko gara; gizarte oso teknologizatuetan. Tokiko politika publikoen esku ez dauden elementu ugari aurreikus daitezke.

Adimen artifizialean eta, bereziki, lengoaia naturalaren prozesamenduan egindako azken aurrerapenak aparatukoak izaten ari dira. Hizkuntza eredu neuronal berriek hizkuntza ulertzeko eta sortzeko gaitasun ikaragarria frogatu dute eta orain arte imajinatu ezin ziren aukerak eta garapenak zabaltzen ari zaizkigu begi aurrean. Hizkuntzak biziberritzeko oinarriak ere eraldatzen ari dira, eta amesteko aukera ematen digute, euskararen erabilera eta ezagutza unibertsala helburu.

Disrupzio teknologikoen testuinguru honetan, hizkuntza hegemonikoak are indartsuagoak izateko arriskuaren aurrean, lasterketa teknologikoa garaiz hasi eta ongi posizionatuta hastea estrategikoa da. Aipatu dugun eraldaketa globalaren testuinguruak eszenatoki aldaketa sakon batera garamatza, eta honi gehitu behar zaizkio ikergune zientifikoek, azken ikerketek eta euskalgintzako eragileek esaten digutena: ez aurrera eta ez atzera gaude, eta azken hamarkadetan egindako lan eskerga ezerezean gera daiteke gaur egungo agortze adierazleei eta errealitate eraldatzaileari hizkuntza-politika berri, ekintzaile eta gaurkotu batekin erantzuteko gai ez bagara.

Testuinguru korapilatsu honetan, gainera, epaitegietatik iristen ari diren erabakiek hizkuntza-politikari muga berriak jarri dizkiote, eta orain arte indarrean zegoen arkitektura juridiko ahula txikitzen ari dira. Hainbat eragilek erabaki horiek sustatzeko ageriko azpilana egin dute, gizartean diskurtso faltsuak elikatuz botere mediatikoen laguntzarekin. Neurri eraginkorrek eta ausartak behar ditugu egindako urratsetan, nagusiki administrazioaren euskalduntzean eta hezkuntza sisteman, atzera ez egiteko.

2.4 Hizkuntza auzi politikoa da: zeharlerrotasuna estrategikoa da

60-70eko hamarkadetan osatu ziren diskurtsoek, altxatu ziren egiturek eta garatu ziren kontsentsuek markatu dute euskalgintza modernoaren joko zelai diskurtsiboa. Han du ore egituratzailea. Baina XXI. mendeko gizartea asko aldatu da oso denbora gutxian. Hemen dugu neoliberalismo basatia, globalizazio orotarikoa; hemen dugu, ondorioz, indibidualismo gotorra. Ni eta ni. Lehengo gutasuna garai berriak erabat blaitu duen likidotasunean urtu da, azukre koskorra nola. Eta gure euskaltzaletasuna arrazoitzeko orain arteko diskurtsoak era berean moldatu behar ditugu.

Eta feminismoak egin duen bidetik asko ikas dezake euskararen aldeko teoriak. Feminismoak dio emakumea ez dela jaio, egin egiten dela. Eta euskaldunari ez ote zaio berdin gertatzen? Euskalduna ez da jaio, egin egiten da hemen, Euskal Herrian, egunero eta toki orotan. Euskaldunak erabaki behar du, bere bizitzaren alor ia guztietan, euskalduna izaten jarraitu nahi duen, bestelako indarrak daudelako, etengabe, une oro, erdalduna izatera daramatenak. Eta hautu hori, hautu politikoa da, noski. Horregatik, hizkuntzaren aldeko borroka, borroka politikoa da ezinbestean.

Euskararen biziberritze prozesua, gainera, ezin da ulertu historikoki emakumeek familian, irakaskuntzan, zaintzan edo euskara elkarteetan egin dutena aitortu gabe, ezta gizartearen eraldaketa feministatik kanpo ere. Diseinatuko dugun hizkuntza-politika berri honek berdintasuna izango badu abiapuntua, oinarria eta zerumuga, genero berdintasunarekin ere uztartu behar dugu, biak baitira justizia sozialaren zutabeak eta bi mugimenduak, euskararen aldekoa eta feminismoa, zapalkuntza estrukturalen aurka doazelako. Hizkuntza-politika berria, beraz, ez da soilik hizkuntza-sistema hobetzeko tresna izango, ezpada eraldaketa sozial eta demokratikoaren zutabea. Helburua da ez bakarrik euskara bizirik egotea, baizik eta bizitza zaintzen duen hizkuntza izatea.

Borroka hori erraz lotu daiteke mundu justu baten aldeko borrokarekin. Esaten baldin badugu gaur egungo munduaren krisi ekosozial globala dela une honetan aurrean dugun erronkarik handiena, eta ez dela, noski, bakarrik gurea, baina geuk ere ardura dugula aurre egiteko soluzioak jartzeko unean; eta esaten ari baldin bagara funtsean, bestelako gizarte bat eraikitzea dela kontua, hazkunde etengabean oinarrituko ez dena eta justizian, elkarzaintzan eta burujabetzan ardaztutakoa, garbi dago, feminista euskaltzaleek ohartarazten duten bezala, hizkuntza hautua ere demokraziaren eta justizia sozialaren parte eta arazoa dela, denoi dagokiguna, justiziaz, zaintzaz eta burujabetzaz ari garelako hizkuntzaren aldeko borrokaz ari garenean.

Hizkuntza auzia, beraz, norbanakoa ahalduntzeko auzia bada. Eta, era berean, burujabetze kolektiboaren auzia bada, partikulartasuna eta kolektibotasuna batzen dituelako bere baitan. Izan ere, identitatea ez baita hautu indibiduala soilik, nortasuna komunitatean eraikitzen baita. Are gehiago, komunitatearen izate-baldintza da hizkuntza, hizkuntzarik gabe ez dagoelako partaidetza publikorik eta, beraz ez dagoelako benetako berdintasunik. Horregatik, komunitatearen giza-eskubide kolektibo eta oinarrizkoa da hizkuntza, ezagutza unibertsala eskatzen duena. Horregatik, nazio ikuspegitik, ardatzeko borroka da

Eta, beraz, bizitza publikoaren arlo guztiak ukitzen dituen, hizkuntza-politikak zeharlerrokoa behar du izan. Hizkuntza-politika ezin da izan, beraz, soilik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Euskarabidearen

edo Euskararen Erakunde Publikoaren afera eta ardura. Eta, beraz, politika publiko guztietan hizkuntza ikuspegi txertatu behar da, betebeharrak gisa.

Horretaz gain, zeharlerrotasunak hizkuntza-politikaren ikuspegi osoa bermatu behar du, eta ondorioz, kon-tuan hartu behar da sail edo eremu batean hartzen diren erabakiek eragina izan behar dutela edo izan de-zatekela beste eremu edo sail batean. Zeharlerrotasunaren ikuspegi integrala joratu behar da

Eta, beraz, administrazioan aritzen edo arituko diren profesional guztien prestakuntzan ezagutza soziolin-guistikoa lantzeko berariazko begirada ezarri behar da. Eta, beraz, egiten diren estatistika eta txosten eta plangintza guztietan euskararen ezagutza, motibazioa eta erabilerari buruzko datuen bilketa sistematizatu egin behar da, eta datuon ikerketa aurreikusi eta garatu behar da. Eta, beraz, politika publiko guztietan hiz-kuntza ikuspegi txertatzeko betebeharrak ezarri behar da, hala aurrekontuetan nola araugintzan.

Hizkuntza-politika lehen mailako afera politikoa da, nahi eta nahiz ez.

2.5 Hizkuntza politika berri baterako gogoia eta herri-akordiorako lana

Beraz eta adostasun zabala baldin badago berdin jarraitzekotan, ez dugula aurrera egingo, garbi dago gauzak orain arte egiten genituen bezala egiten jarraitzeak ez gaituela ataka honetatik aterako. Mendiaren irudia ba-liagarria da: oinarritzko kanpamentuan dago euskararen espedizioa, baina batzuek behera nahi dute, nahikoa lortu delakoan, eta guk, berriz, gora jarraitu nahi dugu, tontorrera inoiz iritsiko ote garen jakin gabe jarraitu ere.

Gora egin nahi dugunon artean, kontsentsua dago: helburuak garbi markatzeko eta adostasunak bilatzeko unea da. Eta testuingurua aldekoa dugula sumatzen dugu. Euskalgintza astinaldi bila dabil aspaldiotan, gelditzea atzeraka egitea dela ulertuta, eta bada mugimendurik: horren erakusgarri dira Euskalgintzaren Kontseiluaren Batuz Aldatu dinamika eta haren proposamen sektorialak; Euskaltzaindiak sustatuko Euskararen Gogoetagea taldearen txostenak edo Euskaltzaleen Topagunean sustatutako Topalabe taldearen gogoetak.

Adostasunerako aukerak baliatu eta hizkuntza-politika berri bat eraikitze inoiz baino baldintza hobekak ditugu beraz: baditugu adierazleak; bada garaia; kontziente gara; euskaltzaleen artean aspaldian ez zegoen adostasuna dago. Urruntzeak bezala hurbilpenak ere egon dira azken urteotan, eta gaur da eguna non ia alde guztiek onartzen duten osagarriak izan behar direla ahaleginak. Halere, osagarritasun hori nola gauzatzen den zehazteke dago oraindik

Ez da ahaztu behar ordea egoera politikoak zuzenean eragiten diola baldintza horien bilakaerari, eta ados-tasunak lortzeko bidean zailtasun indartsuak egon daitezkeela, beti egon direlako eta beti egongo direlako. Errealismoz jokatu behar dugu, baina anbizioz.

Herri akordioa behar dugu, inoiz baino beharrezkoagoa da, eta bide horretan nekatu gabe lan egingo dugu euskararen biziberritzea eta herri-interesak aurretik jarritz.

2.6 Diagnostikoaren laburpena

Hurrengo taularen bidez, euskararen biziberritze prozesuan aurkitzen ditugun ahulguneak, indarguneak eta antzeman daitezkeen joerak eta inpaktuak sailkatu nahi izan ditugu:

Ahulguneak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> • Eskolatik ateratzen diren gazteen hizkuntza-gaitasuna apaltzen ari da. • Erdalduntzen duen testuingurua da nagusi. • Hezkuntza-ereduen ezintasuna testuinguru berriei erantzuteko. • Arnasguneen galera gertatzen ari da. • Erdarazko ikus-entzunezkoen eta kulturaren kontsumoa nabarmen areagotu da. • Hizkuntza-politika agenda politiko eta sozial-lean kokatzeko zailtasunak. • Euskalgintzaren muskulu sozialaren galera ematen ari da. • Euskararen estatus juridiko ahula, hizkuntza-hierarkia eta erasoaldi judiziala. Zatiketa juridiko administratiboa. • Hizkuntza-politikaren “arrazionalitate neoliberala”. • Euskaltzaletasunaren dimentsio ideologiko-diskurtsiboa posizioak galtzen ari da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Motibazioa eta atxikimendua. • Euskaldunok hizkuntza erabiltzen dugu ahal dugunean. • Hizkuntza transmisioa indartsu dago. • Hizkuntza azpiegitura instituzional eta soziala. • Udal mailan egondako bulkada eta dagoen sarearen eskarmentua. • Euskararen ezagutza, ulermena eta hizkuntza-gaitasun tekniko handitzen, zabaltzen eta sakontzen ari da. • Diagnostikoa konpartitzeko aukera errealak: Kontseilua-Batuz Aldatu; Euskaltzaindia-Gogoetagunea. • Erreakzio baterako gogoia. (Kontseilua, EHE...). • Alderdi abertzale eta euskaltzaleen nagusitasun politiko elektoralak. • EAEn dagoen aldekatasun sozial nabarmena eta Nafarroan egindako azken ikerketek erakusten dituzten argi-izpiak. • Nafarroako hainbat eskualdetan, Iruñerrian bereziki, emandako aurrerapauso handiak. • Periferian kokatu izan diren hainbat herri eta herrialdetan ematen ari diren praktika berriak (Arabar Errioxa, Gasteiz, Nafarroako Erribera...).
Etorkizuneko joerak eta eraginak	
<ul style="list-style-type: none"> • Adimen artifiziala: azelerazio teknologiko handiko garaiak datoz. • Gizarte aldaketak eta erreproduktzio sistemak iraultzen ari dira. • Hizkuntza kode eta interfaze hutsa bilakatzeko arriskua: edukiera eta ez edukia. • Deserrotzea eta indibidualismoa handiago izango da. • Gizarte konplexu eta askotarikoetara goaz. • Gizartearen dualizazioa eta prekarizazioa bultzatzen duen sistema. • Desindustrializazioa eta tertziarizazioa nagusi diren egitura ekonomikoak. • Hizkuntza hegemonikoen arteko lehia gogortzen joango da. • Konpetentzia linguistiko handiagoa izango dute herritarrek, eleaniztunagoak izango dira. 	

Honenbestez, laburbilduz esan liteke hizkuntza baten biziberritzearen gakoak diren adierazleetan oso kezagarriak diren joerak ikusten ari garela. Deitu geldoaldi, geldialdi, larrialdi, minbizi edo minorizazio gorria: hori da gure diagnostia.

Barneko osasunari dagozkion adierazleez gain, hizkuntza hegemonikoen berezko nagusitasunezko dinamika estrukturalak ere kontra ditugu eta etorkizuneko joera teknologikoek prozesua are gehiago bizkortu lezakete.

Baina atxikimenduarekin eta hizkuntzaren transmisioarekin lotutako indarguneak garrantzitsuak dira, argi bat proiektatzen dute. Etorkizuneko joerak eta geldialdian dauden adierazleak eraldatzeko palankak izan daitezke. Baliatu behar ditugu. Gauzak horrela, bizi dugun minorizazio egoerak eskatzen du, lehenik eta behin, egoeraren larritasunaren kontzientzia hartzea eta, bigarrenik, politika berri, sendo eta ausartak abian jartzea.

Euskara lehentasunetara ekarri behar du EH Bilduk eta anbizioa transmitituko duen hizkuntza-politika berria programatu. Horretarako, gure indar instituzionala eta militantea baliatu behar dugu. Herri eta eskualdeetan beste inongo indar politikok ez daukan sare eta eskarmentu zabala dugu: konprometitutako militanteen ehun sendo eta aktiboa.

Larritasunaren kontzientzia hartzea bezain garrantzitsua da esperantza aktibatzea eta esperantzarako ekitea. Indarberritze-aro berri baterako gogoia, desioa eta grina piztea eta geure militantzia politikoak gogo, grina eta desio hori irradiatzea.

Hizkuntza-politika herrietara jaitsi behar dugu, eta handik gora proiektatu. Hizkuntza politikei buruz hitz egin behar dugu, pluraleraz, aniztasuna, egokitzeko gaitasuna eta anbizioa proiektatzeko.

Eta garbi izan: geu izango gara prozesu hau lideratuko dutenak, ez beste inor.

3. Hizkuntza-politika berriaren marko estrategikoa

3.1 Euskara da euskal herritarron hizkuntza nazionala

Euskara da Euskal Herriaren hizkuntza nazionala, eta euskaratik eta euskaraz ardaztuko den Euskal Herri eleaniztuna dugu amets. Euskara da gure nortasun nazionalaren bizkarrezurra eta euskal herritar guztion berezko hizkuntza. Eta jaso genuen hizkuntza utzi nahi diegu gure ondorengoei, egoera eta baldintza hobea-goetan utzi ere.

Jauzi kualitatiboa behar dugu euskal herritarrak euskaraz eroso bizi daitezen eta euskarak izan dezan Europako estatuen hizkuntza ofizialek beren lurraldeetan duten estatus eta berdintasunezko egoera eremu juridiko, politiko eta soziolinguistikoan.

3.2 Hizkuntza-politikaren oinarriak eta printzipio-gidariak

Berdintasunean bizi nahi dugu eta hori lortzeko bidea ekitatea da. Horrek esan nahi du ezberdintasun egoeran dagoen hizkuntzari berdintasunera iristeko behar duen guztia eman behar diogula. Horretarako espazio hegemonikoak eman behar dizkiogu, non hizkuntza baten funtzio nagusiak osotasunez garatuko diren. Bide horretan hizkuntza nazionalak behar dituen politika publikoak aurrera eramateko eta behar dituen baldintza formal, material eta sinbolikoak sortzeko, estatus juridiko berria behar dugu.

Ekitatea hizkuntza-justiziarekin lotuta dago, eta horixe dugu ezberdintasun egoeran dagoen gure hizkuntza nazionalari egiazko berdintasuna emateko ezinbesteko zorua. Hizkuntzen eta hiztunon arteko harreman bi-degabe eta desorekatuak orekatu eta berdintzea da bilatzen duguna. Hizkuntza-justizia behar dugu, euskal hiztun komunitateak mendeetan jasan duen jazarpen eta zapalketaren ondorio delako egungo minorizazioa, gaur egun dirauten egiturazko oztopo sinboliko, material eta formalak sortu dituen. Memoria ariketa etengabe honek indarra eman behar digu euskararen ordezkatzeko prozesua biziberritze- eta erreparazio-prozesu etiko eta komunitario baten bidez iraultzen jarraitzeko.

Euskararen normalizaziorako ekintza positiboen konpentsazio-marko bat garatu nahi dugu, finean.

Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira, indibidual eta kolektiboak, euskal herritar guztionak, eta herritar guztion duintasunari eragiten diotenak. Ez baitago giza eskubideen arteko hierarkiarik. Eskubide guztiak dira elkarren osagarri eta banaezinak. Hizkuntza eskubideak ere geure komunitate nazionalaren eskubideak dira eta gure herriaren duintasunari eta errespetuari eragiten dioten muineko alderdia.

Horregatik, euskararen aldeko borroka berdintasunaren eta justiziaren aldeko borroka unibertuala da; Euskal Herriaren askapen nazionalaren eta sozialaren aldeko borroka; demokratizazioan aurrera egiteko eta aniztasunaren aldeko borroka; hierarkia, desberdintasun eta injustizia linguistikoekin amaitzeko eta bizikidetzan, berdintasunean eta justizian aurrera egiteko borroka.

Plazak eman nahi dizkiogu euskarari. Plaza zahar eta berriak. Hegalak eta hegoak eman nahi dizkiogu geure hizkuntza nazionalari. Plaza guztietan nahi dugu berdintasunean eta eskubide osoz euskaraz bizi. Herri-proiektu baten eraikuntza ardatzen duen egitasmoa da geurea: euskara berdintasunean eta eskubide osoz bizi dadin.

EH Bilduren hizkuntza-politika berriak oinarritzko honako printzipio hauek izango ditu, gure politika publikoak gidatuko dituzten printzipio-gidariak hain zuzen ere:

- **Unibertsala eta kohesionatzailea.** Herritar guztientzako hizkuntza-politika unibertsala eta kohesionatzailea behar dugu, euskararen ezagutza herritar orori erraztuko diona eta euskara komunitatean txertatu eta bizialdian aurrera egiteko bidaide izango dena.
- **Kooperatiboa eta ekintzailea.** Administrazioaren trakzio-gaitasunaren eta euskalgintzaren bulkada soziala batuko dituen politika ekintzailea bilatzen dugu.
- **Eraginkorra.** Jakintza zientifiko eta soziolinguistiko onena ardatz izango duen politika nahi dugu, plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntzarako tresnak izango dituen, egitura betearazleak lagun, politika publikoen bikaintasunaren mesedetan. Baliabide nahikoak ziurtatuta izango dituen politika publiko sendoak martxan jarriko dituen estrategiaren beharra dugu.
- **Zeharlerrokoa.** Politika sozial, ekonomiko, industrial, teknologiko edo demografikoen inpaktua eta eragina barneratuko duen asmo zeharkatzailea izango da.
- **Lurraldearen araberako begirada duena.** Tokian tokiko errealitatea kontuan hartu eta eskala instituzional desberdinetan desplegatzeko aukera izango duen politika proposatzen dugu.
- **Berdintzailea.** Zeharlerrotasunaren eta berdintasunaren oinarriak bere egin eta bultzatuko dituen hizkuntza-politika eraldatzailearen bila ari gara.

3.3 Kontuan hartu beharreko ardatz eta gako berriak

Botere eta politika publikoen erabilera indartu nahi dugu. Askatasunaren ideal neoliberaletik urrun, gizartean hizkuntza komunitateen eta hiztun taldeen artean gurutzatzen diren botere harremanen baitakoa da nagusitzen den hizkuntza-praktika eta -erabilera. Eta, beraz, norbanakoen praktika eta ekimen kolektibo antolatua beharrezkoak eta indartu beharrekoak izan arren, normalizazio prozesuetan ezinbestekoa zaigu botere eta politika publikoen erabilera sendoa eta eraginkorra.

Hizkuntza normalizazio prozesuak gizarte eraldaketarako prozesu sakonak dira, indarrean dauden botere harremanak eraldatzea ekarri behar dutenak. Hizkuntza normalizazioak ikuspegi hori bere baitan izango duen hizkuntza-politika garatzea eskatzen du. Aurrera begira, politika publikoetako tresna guztiak, besteak beste hain garapen urria izan duen araugintza, modu orekatuan baliatuko dituen hizkuntza-politika behar dugu. Hizkuntza-eskubideen berme efektiborako beharrezko betekizunak ezartzeko gai izango den politika, hain zuzen ere.

Integrazioan, kohesioan eta eskubide kolektiboetan oinarritutako hizkuntza-politika behar dugu. Hiztunen arteko banaketa eta eskubide indibidualetatik harago joango dena.

Horretarako, euskararen berezko hizkuntza eta hizkuntza nazionalaren izaerari garapen juridiko osoa eman nahi diogu, lehentasunezko eta erabilera normaleko hizkuntza bilakatuz funtzio, espazio eta plaza nagusietan. Norbanakoen euskalduntzean oinarritutako hizkuntza-politikaren eredutik eremuak edo espazioak eus-

kalduntzera bideratutako hizkuntza-politika eta konjuntzio-eredura joan behar dugu. Lurralde-arnasguneak eta arnagune sozio-funtzionalak sortzera, indartzera, eta elkar lotzera bideratutako politika publikoak.

Azken hamarraldietan gizartea aldatu da, erronka berriak ditugu, egindakoaz asko ikasi dugu eta jakintza zientifikoak ere beste gako batzuk eman dizkigu. Begirada aldatzeko, giltzarriak diren ideia hauek kontuan izatea ere garrantzitsua da:

- Hizkuntza gaitasunari erreparatzea eta erabileran duen pisua aintzat izatea oso garrantzitsua da. Ez zaio behar den arreta eta azpimarra jarri orain arte eta jarraitu behar dugu hizkuntza gaitasunaren geruzetan sakontzen eta ikertzen.
- Euskararen normalizazio prozesuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan hartu behar dira.
- Euskararen hegemoniak eraikitzeke baldintzak eskaintzeko duten rolagatik, arnaguneen (funtzionalak eta territorialak) garrantzi kualitatibo eta estrategikoa onartu behar dugu eta gune horiek sustatu eta egonkortzeko politikei behar den neurria eman.
- Hiriguneetara bideratutako berariazko estrategiak garatu behar ditugu, euskararen aldaera hiritar eta berriak garatzeko espazioak eratuz. Berebiziko garrantzia du gune urbano eta dentsitate handikoei lehenetasuna emateak.
- Datozen hamarkadan gurekin lan egitera eta bizitzera etorriko direnentzako hizkuntza harrera egoki, eraginkor eta abegikorra antolatu behar dugu, eta euskara ongizatean eta ibilbide profesionalean aurrera egiteko tresna bilakatu behar dugu. Euskara zubi eta bidaide izatea bilatu. Horretarako, ezinbestekoa zaigu zaintza lanetara edo beste testuinguru prekarizatueta etorri diren emakumeen motibazioak, jarrerak eta egoerak aztertzea, eta hortik abiatuta komunitatean txertatzeko politikak diseinatzea, jakitun garelako transmisioan eduki duten inpaktua. Erronka zaila da, baina berebiziko garrantzia dauka. Garbi izan behar dugu gure hizkuntza-politika proiektu bat izan behar dela, ez erreakzio bat. Testuinguru eleanitz batean, euskarak beste hizkuntzekin berdintasunezko estatua erdiestea lortu behar dugu.
- Adimen artifizialaren bidez hizkuntzarekin dugun harremana eraldatuko duten sistemen erabilera komunitarioak pentsatu eta gauzatu behar ditugu; olatu teknologikoa hartu eta geure alde jarri.
- Administrazioaren ahalmen politiko, egituratzaile, trakzionatzaile eta performatiboa aintzat hartuko duen politika behar dugu. Izan ere, administrazioan inon baino baldintza soziolinguistiko hobeak ditugu euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izateko. Administrazioaren eragin instrumental eta sinbolikoa baliatu behar dugu arnagune sozio-funtzional indartsu bat eraikitzeke.
- Kontuan izan behar dugu halabeharrez sozializazio eredu eta mekanismo berriak dituztela herritarrek eta mugikortasun-ohiturak ez direla lehen zirenak. Sare sozialek, plataformek eta gailu teknologikoen bideratzen dituzte gure harremanak eta Euskal Herriaren luze zabalean hiriguneek zentralizatzen dituzte geroz eta gehiago zerbitzuak, komunikazio-sareak eta merkataritza-jarduera nagusiak.
- Kultur sistema aberats, gozagarri eta indartsua eratu behar dugu, bereziki ikus-entzunezkoen esparruan eta sortzaileen lan baldintzak nabarmen hobetuz.
- Ongi jakin behar dugu non ditugun baldintzak onenak gure politika aurrera eramateko; zer dagoen geure esku eta non erabili behar ditugun bestelako estrategiak. Non dugun komunitatearen indarra eta bote-ahalmena nagusitasunezko eremuak sortzeko eta non sortu behar ditugun kalitatezko espazio lehia-

korrak; non garatu behar ditugun baldintza hobeak sortzeko estrategiak eta non baliatu behar ditugun, bururaino, irekita ditugun bideak.

- Euskararen geldotze aroaren kausa ez dira euskaraz hitz egiteko baldintza egokiak aurkitzen ez dituzten edo gaitasun egokia ez duten euskaldunak. Ezta gurera lan egitera edo bizitzera etorri eta etorriko direnak ere. Globalizazio prozesuak, martxan dauden hizkuntza-politikak, hizkuntza hegemonikoen dinamika egituratzaileak eta hizkuntzen arteko desberdintasun juridikoak dira oztopo nagusiak, ez bakarrak. Etorri berriei ezin diegu ez dagokien motxilarik bizkar gainean jarri; euskal hiztunei, ere ez.
- Ezin da ahaztu arlo sozialean, lurralde antolaketan, industrian edo berrikuntza arloan eramaten diren politika publikoek eragin handia dutela hizkuntza-politikan. Areago: hizkuntza-politika alor eta esparru guztietatik egiten da, baita egiten ez denean ere. Esaterako, etorri berrien ongizate maila hobetzeko politika publikoak aurrera eramaten ez badira, nekez gerturatuko dira euskarara. Euskara ongizate maila hobetzeko politikekin lotzen badugu, ibilgailu sozial horretan bidaide eta laguntzaile izango dute hizkuntza, eta lehen motibazioa, pragmatikoa, indartu egingo da.

3.4 Marko mentalaren aldaketa: konbentzimendu zaharrak deseraiki eta berriak eraiki

Gure iruditegian ezarrita ditugun marko kultural eta sinbolikoak gainditu behar ditugu aro berriari erantzuteko eta beste marko batzuk eraikitzeko. Marko mental berriak euskararen erabilera erreal eta plurala aitortuko du, erdigunean hiztunaren esperientzia jarritz. Esaterako:

- Zabaldu, pentsatu eta barneratu izan denaren kontrara, euskaldunok eta euskara gaitasun mugatua duten askok ere aukera dutenean euskaraz egiten dute. Horrek adierazten du euskaldunon atxikimendu handia eta espazio egokiak lortzen direnean euskara erabiltzen dela. Oso kontuz ibili behar dugu euskara gutxi erabiltzen delako markoa elikatzearekin.
- Nafarroan azken urteotan zabaldu izan denaren kontra, gehiengo bat dago begi onez ikusten duena hizkuntzaren aldeko politika, eta harreman handiagoa eduki nahiko lukeena hizkuntzarekin, ezagutzaren bidez. Baina Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioaren arabera eboluzioa gertatu da. Eremu mistoan, non lurraldeko biztanleen bi heren bizi den, aldekatasuna positiboa bada ere, eremu ez euskaldunean aurkakotasuna hazi egin da azken urteotan. Zonifikazioaren bidez zatiketa bat ezarri da edo bultzatu nahi izan da. Horregatik, daukaten neurriaren arabera baloratu behar dira Iruñerrian irakaskuntzaren bidez lortu diren aurrerapausoak edo Erriberan antzematen diren kimuak (Errigora, D eredu berriak). Baita Arabako hegoaldean egin diren urratsak ere. EAEn, herritarren gehiengo oso handia dago euskara sustatu eta bultzatzearen alde eta administrazioan bi hizkuntzak eskatzearen alde.
- Ez dago euskaldun izateko modu bakarra. Gizartea gero eta anitzagoa da eta euskalduntasuna bizitzeko era ezberdinak daude eta denak hartu behar ditugu kontuan. Esaterako, euskara ama hizkuntza ez duten euskaldunen ahalegina gure hizkuntzak izan duen motor indartsuenetako bat izan da, eta hirietan eta eremu nagusiki erdaldunetan egon den bultzada, erabakiorra.
- Hizkuntza-politika guztion ardura da, euskara den lurraldeetako gobernu guztien ardura, euskal herritarroei eragiten diguten politikak eskala instituzional guztietan gauzatzen direlako, Europako egituretan hasi eta tokian tokikoetan ere bai. Ikuspegi horrek aurrekontuetan, arkitektura juridikoan, politika publikoetan eta proiektu estrategikoetan izan behar du isla.

4. Hizkuntza-politika berriaren herri erronkak eta norabidetzea

Printzipio gidariei jarraiki, hainbat herri erronka identifikatu ditugu, gure hizkuntza-politika gidatuko duen marko estrategikoa eta norabidea emango digutenak: hizkuntza-politikaren lema anbizioz aurrera eramateko itsasargiak. Jakin badakigu herri erronka hauek elkar elikatzen dutela eta hainbat ekimen elkarrekin gurutzatzen direla. Elkarloturik dagoen ekosistema bezala ulertu behar dugu, beraz, eta geure hizkuntza-politika norabidetzen eta antolatzen lagunduko digun baliabide programatiko bizi eta dinamiko gisa.

Euskararen ezagutza unibertsalizatzeko bidean aurrera egin behar dugu eta hizkuntzaren gaitasun multidimentsionala (komunikatiboa, kontzientea, gozamenekoa) areagotu. Euskararen zorua igo, huraxe delako euskararen erabilerarako eta guztion hizkuntza izateko oinarritzko eta ezinbesteko baldintza. Edonon, edonoiz eta edonorekin euskaraz hitz egiteko aukera emango duen oinarria.

Hiztunak euskarazko espazioak, funtzioak eta lurralde hegemonikoak behar ditu, eta aisialdi antolatuan; administrazio publikoan, udalerrri euskaldunetan eta eremu urbanoetan nagusitasunezko eremuak babestu, eratu, indartu eta saretuko ditugu. Gertuko ehun komunitarioetan eta botere formala eskaintzen duten funtzio, espazio eta lurraldeetan euskara nagusi izateko apustu estrategikoak egingo ditugu.

Hau guztia elikatuko duen XXI mendeko azpiegitura teknologiko, ikus-entzunezko, kultural eta mediatiko berria behar dugu. Bere garaian Euskara Batuak eragin zuen efektuaren pareko azpiegitura, mende eta erronka berrietarako hizkuntza gaitu eta euskaldunak elikatuko dituena.

Hizkuntzaren aldeko borroka elikatuko duen dimentsio politiko eta ideologikoa bultzatuko dugu, euskararen aldeko kontzientzia indartuz, baita hizkuntzarekiko atxikimendu eta motibazio instrumental, integratzaile eta sinbolikoen multzoa ere bultzatuz.

Azkenik, hau guztia ahalbidetuko duen estatus juridiko berria borrokatuko dugu euskararentzat Euskal Herri osoan, euskarak behar dituen politika publiko aurreratua eramatea ahalbidetuko duen arkitektura juridiko gaurkotua izateko eta euskara nazio- eta kohesio-hizkuntza egituratzaile bihurtzeko.

H.E. 1: Ezagutzaren hedapen unibertsalean aurrera egin eta hizkuntza-gaitasuna handitu

Ezagutza unibertsalizatzeko bidea eraiki, herritarren hizkuntza gaitasuna hobetu, eta harrera-hizkuntza bihurtu behar dugu euskara, euskal herritarren gehiago zabala euskalduna izan dadin.

Murgiltzean oinarritutako irakaskuntza aitzindaria izan da hizkuntza gutxitu baten beharretara moldatzeko pedagogia eta didaktika eredu berriak sortzen, eta bitartekoez hornitzen jarraitu behar dugu, hain premiazkoa dugun erabileran gora egin ahal izateko ahozkitasunaren lanketa egiten jarraitzeko. Berdin ere helduen euskalduntze alfabetatzeari dagokionez.

Baina, gainera, hezkuntza komunitatean zabaldu egin behar dugu gure herriaren egoera soziolinguistikoaren kontzientzia: euskararen egoerari buruzko ezagutza kritikoa (testuinguru soziolinguistikoa, hizkuntza-ezber-

dintasunak, botere-harremanak); hizkuntza erabiltzeko gaitasun pragmatikoa testuinguru anitzetan, eta euskararekiko jarrera aktibo eta kontzienteak, erabilera sustatzeko prestutasuna barne.

Irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle. Euskal kulturaren transmisioa hezkuntza programen bidez ziurtatzeko proposamenak egingo ditugu, kultura behar baitu hizkuntzak, biziko bada.

Bestalde, ikasle guztiek, ratio zurrunen menpe egon gabe, epe labur batean hizkuntza jasotzeko eskubidea izan dezaten lan egingo dugu.

Gazteei irakaskuntza araututik kanpoko mundu bat euskaraz eskaini nahi diegu, eta proposamen zehatza egingo dugu herri guztietan eskolaz kanpoko aisialdi antolatua euskararen arnasmune izan dadin.

Eta irakaskuntza arautua amaitzean gazteak lan munduan hasiko direnez, enpresetan euskara harreman eta lan hizkuntza izan dadin sakoneko aldaketak bultzatu nahi ditugu, Lanbide Heziketako eskaintzaren zabalpenetik hasita, enpresen funtzionamenduetan eta datozen enpresa molde berrietan benetan eragiteko. Herri erronkaren emaitza izan beharko luke hezkuntza sistematik ateratzen diren gazteen euskara gaitasuna eta euskararekiko atxikimendua nabarmen hobetzea eta ezagutzaren unibertsalizazioantz urratsak ematea.

Lorpena litzateke euskararekiko lotura eta harremana duten herritarren kopurua nabarmen handitzea; horrek hizkuntzarekiko atxikimendua areagotuko luke, soilik ezagutzen dena maitatu daitekeelako. Irakaskuntzak garrantzi estrategikoa dauka jarrera horiek aldatzeko, baita helduen alfabetatze eta euskalduntzearen sektoreak ere.

Aukera dago doakotasun errealean eta harago ere aurrerapauso handiak emateko hurrengo urteetan, ikasteko denbora emanez, euskara ikastea irisgarriagoa eginez. Euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea egiantz gauzatzeko herritarrek euskara ikasteko duten eskubide subjektiboa aitortu behar dugu eta ikaskuntza-prozesua zailtzen edo eragozten duten alderdiak (ekonomikoak, denborazkoak, kulturalak, etorri berriak direlako, desberdintasun-egoerek sortutakoak eta gainerakoek) gainditu. Euskalduntzea erraztu, lagundu eta azkartu behar du eta irisgarria egin.

Ildo estrategiko hauek eramango ditugu aurrera:

- Euskara ikastea eskubide subjektibo gisa aitortzeko ekimen legegileak abian jarriko ditugu. Neurrien artean, euskara ikasteko ordu-poltsa subjektiboa, C1 bitarteko doakotasun erreala eta ezagutza unibertsalizatzeko neurriak.
- D ereduaren eraldaketa martxan jarri behar dugu, hizkuntzen tratamendu integral eta integratua bilatzen duen ikas eredu orokortuaren bila, euskaraz eroso bizi ahal izateko gutxieneko hizkuntza-gaitasunak ziurtatuko dituen motibazio-sistema elikatuko duena. Euskal hiztun osoak sortzen duena, alegia. (Ikus: “Jauzi baterako aukera. Euskara eta hizkuntzen markoa hezkuntza testuinguru eleaniztunean” eta “Hezkuntza Sistema Publiko Burujaberantz” txostenak). Eraldaketa honek kalitate-jauzi handia eskatzen du, irakaslearen hizkuntza-gaitasunean eta gaitasun berrietan. Euskararekin harremanik ez duten ikasle guztiek euskarazko gutxieneko ezagutza aberastua izatea ere lortu behar dugu.
- Euskalduntze-alfabetatzearen sektorearen estrategikotasuna lehen lerroa ekarri behar dugu eta finantzazio-eredu iraunkorra bultzatu behar dugu, doako zerbitzu publiko bezala egonkortzeko. Era berean, koordinazio eta lankidetzarako erakundetze nazionala bultzatu behar dugu.
- Harrera-linguistikoko handi eta eraginkorrerako sistema antolatu behar dugu, harrera-prozesuetan euskara erdigunean jarri eta bizitzera datozen herritar guztiei euskara eskainiz, beren bizialdia (profesionala, komunitarioa, soziala, emozionala) hobetzeko bidaide eraginkorra izan dadin.

- Euskararen transmisioak duen garrantziagatik, hura elikatzen jarraitu behar dugu, nagusi izan den familia-ikuspegiak gain, ikuspegi komunitarioa ardatz izango duten esku hartzeak eta praktikak martxan jarri.
- Lanbide Heziketako ziklo eta modulu guztiak euskaraz eskaini ahal izateko eredu orokortura joan behar dugu.

H.E.2: Plaza berriak sortu eta hiztunak trinkotu

Euskara hizkuntza nagusia izango den eremu sozio-funtzionalak, komunitarioak eta lurguneak sortu, hedatu, indartu eta elkar-lotu behar ditugu euskaldun orekatu eta osoen kopurua nabarmen areagotuz.

Hiriburu edo hiriguneek jokatzen duten rol sinbolikoa indartu egin behar da. Inguru hauetan bizi da euskaldunen gehiengoa, eta inguru hauetan lan edo ikasten du eremu euskalduneko biztanle askok. Bertan daude zerbitzu gehienak, administrazioaren gune zentralak, baita kultur eskaintza jendetsuak edo herritarrekin harreman zuzena duten baliabide ugari ere. Euskararen presentzia batzuetan urardotuta geratzen bada ere, lurraldeka baino, komunitateka pentsatu behar dugu, eta hiztun komunitate horiei begirako estrategiak pentsatu eta garatu.

Bestetik, euskararen arnaguneek betetzen duten funtzio nuklearra aintzat hartu eta babes neurri bereziak eta denboran iraunkorrak hartu behar ditugu, eta euskararen dentsitate altuko guneen iraunkortasun sozio-linguistikoa, sozial eta ekonomikoa estrategikoki kudeatzeko neurriak proposatu. Udalerrri euskaldunek eta administrazio publikoek hartu dezakete arnagune territorial eta sozio-funtzionalaren papera, eta haien eginbeharra indartzeko, eta administrazioaren ohiko lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izan dadin, planteamendu asmo handikoa egin behar da, babes juridiko egokia eta neurri zuzentzaile ugarirekin. Bi gune hauen irradiazio efektu handia izan daiteke.

Bestalde, berebiziko garrantzia du aisialdi antolatua ere arnagune bilakatzeak. Baldintzak badaude aisialdi antolatua euskaraz izan dadin, leku eta une orotan. Adostasun politikoa egon daiteke proiektu ausartak aurrera eramateko, kontuan hartuta haur eta gazteen hizkuntza profila.

Lan munduan ere espazioak sortu behar dira euskaraz bizi ahal izateko, berariaz landutako estrategien bidez eta egitura egokiak garatuz. Dauden esperientzietatik ikasi eta proposamen arrakastatsuak zabaltzeko estrategiak martxan jarri behar ditugu.

Ildo estrategiko hauek eramango ditugu aurrera:

- 0-16 adin tarteko aisialdi antolatuan euskara nagusi izateko apustu estrategikoa egingo da.
- Hiriburu eta hiriguneetan, hiztun komunitatea trinkotzeko eta euskarara gerturatzeko direnek euskaraz hitz egiteko aukera izan dezaten, erreferentziazko espazio eta arnagune sozio-funtzional irradiatzaileak sortzeko proiektuak, azpiegiturak eta egitasmoak bultzatuko ditugu. Era berean, dauden nodoak eta irlak elkar lotzeko egitasmoak jarri behar ditugu, euskararen sareak eta artxipielagoak sortzeko.
- Arnaguneetarako berariazko estrategia integrala, zeharkakoa eta juridikoa eramango dugu aurrera UEMArekin elkarlana handituz eta sakonduz. Eskualdeburu eta eskualdeetarako estrategiak ere garatuko dira arnagune osoari eragiten dioten espazioak diren heinean.
- Euskaldunen arteko sare sozial sendoak artikulatzeko prozesuak eraikiko ditugu (komunitate praktikak, topagune iraunkorrak, sare informal eta formalak) eta aktibazio ideologiko eta diskurtsiborako estrate-

giak sustatuko, herritar euskaltzaleei hizkuntza-politikaren inguruko argudioak emateko eta euskararen irudi sozial eta sinbolikoaren lanketa, bereziki hiriguneetako testuinguru anitz eta gazteetan, euskararen desiragarritasuna, modernitatea eta balio soziala indartzeko.

- Administrazioan euskara ohiko lan- eta zerbitzu-hizkuntza izan eta arnagune sozio-funtzional bihurtzeko apustu estrategikoa egingo da: administrazioak zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzeko, euskaraz lan egiteko eta herritarren aurrean egitura euskaldun eta eragile gisa agertzeko. Herritarren eskubideei dago-kienez, eskubideen urraketari aurre egiteko prozedura eta mekanismo zehatzak eta eragingarriak sortuko dira.
- Izaera publikoko zerbitzu guztiak (zaintza, osasuna,...) euskaraz izateko apustu estrategikoa egingo dugu, diru publikoarekin lagundutako ekintza eta jarduera guztiak euskaraz jasotzea bermatzeak daukan iris-menagatik.
- Enpresa eta industria mundua eraldaketa betean dagoela jakinik, euskararen presentzia lehiakorra izateko egitura publiko berriak eta araubidea erabili behar dugu tamaina jakin batetik goragoko enpresa guztiek hizkuntza-harrera eta hizkuntza kudeaketarako estrategiak izan ditzaten.
- Kontsumitzailearen legean eta estatutuetan aldaketak egin behar dira, hizkuntza-eskubideak eraginkortasunez bermatuak izan daitezen. Enpresei beren izaera, eskaintzen duten zerbitzua, tamaina, fakturazioa eta eragin ekonomikoaren araberako betebeharrak ezarri behar zaizkie.
- Eragin sozial egituratzaile eta mobilizatzaile handia duten gizarte-, kirol-, eta kultur-egitasmo sozialetan euskara nagusi izateko apustu estrategikoa egin behar da.

H.E.3: Ekosistemaren elikadura izango den hizkuntza-azpiegitura berria eraiki

Euskarazko eta euskararen zerbitzuan egongo den XXI. mendeko azpiegitura komunikatibo, kultural eta teknologiko berria eta sendoa eraiki, euskarazko sortzaileak eta euskaratik sortutako sorkuntza, teknologia eta narratibak ardatz.

Aurreko bi herri erronkak elikatuko dituen azpiegitura eta ekosistema sortu beharko genuke, euskarak XXI. mendean behar duen ikus-entzunezko, adimen artifizialeko, sorkuntzako eta komunikazioko zoru sendoa eraikiz. Euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukerak ziurtatu, eta ikusmira eta narratiba autozentratuak sortuko dituen azpiegitura, hain zuzen ere. Euskara batuarekin XX. mendean egin zutenaren antzera, XXI. mendean azpiegitura linguistiko-teknologiko berria utzi behar diegu belaunaldi berriei. Euskara Batua izan zen bezala, XXI. mendeko azpiegitura teknolinguistiko berri bat, Arantzazu berri bat.

Kultur sistema indartzeko lan egiteko konpromiso irmoa hartu nahi dugu. Horretarako, lehenik eta behin, sortzaileak zaindu behar ditugu eta lan baldintza egokiak eta egonkortasuna bermatuko duten lege garapenak proposatu. Euskal Herri osoa barne hartuko duen programazio sarea indartu behar dugu. Hizkuntza hegemonikoentzat ohikoak diren hizkuntza-irizpideak aztertu, hala programazioetan nola emanaldietan. Adimen artifizialaren ahala euskararen garapenerako eta erabilera handitzeko baliatu nahi dugu, gainerako hizkuntza gutxiagotuekin elkarlanerako sareak eratuz. Uste dugu badaudela baldintzak katalanaren pare jarriko gaituen potentzia teknologiko bihurtzeko.

Eta hau guztia euskara eta euskarazko kultura bultzatuko duen komunikazio esparru autozentratu, berritu eta konfiantzako batekin elikatu behar dugu. Pantailetatik iristen den ikus-entzunezkoaren munduan euskarak tokia behar du, eta plataformetan ikusgarri egon behar du euskarazko eskaintzak. EITB horra begira

jarri behar dugu. Ikus-entzunezkoen esparruan geuretik sortutako fikziozko proiektuak baliabidez bultzatu eta plataforma nagusi eta zinema aretoetan euskarazko edukien presentzia esponentzialki handitzeko lan larroak garatu behar ditugu luze gabe.

Ildo estrategiko hauek eramango ditugu aurrera:

- Euskal sortzaile, profesional eta kultur-langileen lan baldintzak egonkortzeko gutxieneko errenta-sistema bultzatuko dugu, hizkuntza-irizpideak txertatuz eta euskal kulturaren transmisioan zentratuko den agenda eta programekin.
- Euskarazko ekoizpen zientifiko-teknologikoa areagotuko da EHU, NUP, UEU eta euskal unibertsitate-sistema osatzen duten erakundeetan. Unibertsitate publikoaren trakzio-ahalmena baliatu behar dugu. Eta euskarazko online unibertsitate nazionala sortzen lagunduko dugu.
- Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena eta euskarara bikoiztu eta azpigitulaturako edukiak plataformetan eta aretoetan esponentzialki handitzeko programak, baliabideak, eta kuota-sistemak ezarriko dira.
- Sare sozialetan euskarazko sorkuntza digitala eta ikusgarritasuna handituko duen laborategiak eta programak bultzatuko dira, euskarazko sortzaileen lana sustatzeko.
- Hizkuntzarekin lotutako adimen artifizialean Euskal Herria Europa mailako polo teknologiko aurreratua bihurtu nahi dugu, euskararen eta hizkuntza gutxiagotuen biziberritzea ardatz duten baliabide, tresna eta teknologia libre, irisgarri eta tekno-komunitarioak sortuz; beti ere plataforma, tresna eta erreminta teknologiko nagusiak euskaraz ere egon daitezen bermatuz.
- Euskararen biziberritzea ardatz duen euskal komunikazio-esparru autozentratu eta aurreratua eraikitzea beharrezkotzat dugu hedabide nazional eta tokikoen artean lankidetzaz eta osagarritasuna bilatuz.
- Estatutuek ezartzen dioten traktore-lana bete behar du EITBk, eta euskara eta euskal kulturaren hedapena bere jardueraren ardatz izan behar du, euskarazko edukiei lehentasuna emanez aurrekontuetan eta programazioan eta plataforma guztietara zabalduz, eta gaztelaniazko edukiak ere euskararen biziberritzerako eta euskal kulturaren transmisiorako baliatuz. Era berean, EITB baino askoz gehiago beharko du komunikazio eremua eta eremu digitalean euskarak aurrera egin dezan. Politika oso bat beharko du (legeak, planak zein baliabideak), hedabide publikoen egitekoa gauzatzeaz gain, gainerako hedabide zein plataformen jarduna, ahal den neurrian, hizkuntza-politikarekin lerratzeko.

H.E.4: Motibazioa, atxikimendua eta euskararen aldeko kontzientzia indartu

Euskararen aldeko jarrerak eta kontzientzia indartzeko tresnak eta espazioak sortu, erabilera areagotu eta gaitasunari ere eragiteko.

Herri-erronka honetan dimentsio ezberdinak urratu behar ditugu. Alde batetik, hizkuntzaren aldeko borroka unibertsala elikatuko duen dimentsio politiko eta ideologikoa (euskararen aldeko kontzientzia) eta, bestetik, hizkuntzarekiko atxikimendu eta motibazio instrumental, integratzaile eta sinbolikoen multzoa (motibazioa eta atxikimendua).

Euskararen biziberritzearen aldeko argudiategi garaikide, sendo eta eraginkorrak sortu behar ditugu, eta tresna diskurtsibo eta politiko erabilgarriak garatu, testuinguru gatazkatsuetan eragiteko eta sortutako eduki horien hedapenerako eta sozializatorako estrategiak aktibatuz.

Soziolinguistikaren arabera, hizkuntza motibazioa ez da soilik ikuspegi psikologiko hutsa; gizarte-dinamika bat da, eta hiru dimentsio ditu: instrumentala, euskara baliagarria dela sentitzen denean (arnasgune batean bizi ahal izateko edo lana lortzeko esaterako); integratzailea, hizkuntza-komunitatearen parte izatearen sentimendua erakusten duena eta afektiboa, hizkuntzarekiko atxikimendu emozionala eta harrotasuna sustatzen duena. Beraz, motibazioa ezinbestekoa da hizkuntza batek aurrera egin dezan, beharrezkoa ez den hizkuntza hiltzera kondenatuta dagoelako.

Motibazioa areagotzeko, soziolinguistikak erakutsi digu hiru dimentsio horiek batera landu behar direla, gaitasunetik harago joanez. Beraz, euskaraz aritzeko aukerak sortu behar dira: lan-inguruneetan, sare soziale-tan, aisialdian. Era berean, euskaraz jarduteak erakargarritasunarekin lotu behar dugu, beharrezkin ez ezik plazerrarekin ere bai. Euskaraz ekarpen positiboa ziurtatu behar dio euskal hiztunari, euskaraz bizi nahi izatea bultzatu behar da. Nola? Euskaraz aritzeko espazioak sortuz; mezu positiboekin lotuz; harrerarekin lotuz (hona nire herria eta nire hizkuntza, etor zaitez); elkartasunarekin eta komunitatearekin harremanetan jarritz (etortzen bazara, ez zara bakarrik egongo).

Motibazioari begiratu arduratsua eman behar diogu: ez da berez sortzen den bulkada, elikatu beharra dago. Eta garrantzitsua da haren bilakaera ere neurtzea. Aldiro egiten diren azterketa soziolinguistikoei euskaraz egiteko motibazioaren jarraipena egitea behar-beharrezkoa dugu, hari eragiteko, sustatzeko eta indartzeko.

Euskararen biziberritze prozesuak, halaber, ezin du soilik elementu emozionaletan edo aurreko ziklo historikoetan eraikitako narratibetan oinarritu. Testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko berriek eskatzen dute pentsamendu eguneratua, berritua eta eraginkorra, euskararen zentralitatea modu sinesgarrian formulatuko duena. Beharrezkoa da euskararen inguruko proposamen ideologiko berriak landu, berritu eta sortzea, hizkuntza etorkizuneko herri-proiektu eraldatzaile baten ardatz zentral gisa kokatuko dutenak.

Ildo berean, euskaltzalegoaren prestakuntza eta aktibazioa sustatzeko neurriak garatu beharko lirateke: formakuntza-espazioak, lelo eta sinbolo partekatuen eraikuntza, eta indar-idea nagusien inguruko kohesioa bilatuko duten dinamikak. Helburua litzateke euskaltzalego zabal bat eraikitzea, gai dena hizkuntza-politikaren inguruko eztabaida publikoetan modu eraginkorrean esku hartzeko eta euskararen aldeko posizioak indarrez defendatzeko. Horrela, motibazioa ez litzateke soilik dimentsio afektibo edo sozialetik landuko, baizik eta dimentsio politiko-ideologikotik ere, gaur egungo testuinguruak eskatzen duen moduan.

Ildo estrategiko hauek eramango ditugu aurrera:

- Euskararen aurkako oldarraldi erregresiboari erantzuna eman eta proaktiboki borrokatzeko aukera emango digun ideia eta balioen komunikazioa, prestakuntza-eskolak eta erresonantzia-kutxak sortzen lagunduko dugu.
- Euskaltzaleen eta euskal hiztun-komunitatea gorpuzten duen mugimenduaren bulkada eta gihar soziala indartzen lagunduko dugu nazio mailan eta baita tokian tokiko esparruetan ere.
- Gainontzeko borroka emantzipatzaile eta askatzaileekin lotuko eta uztartuko den kontakizun eta narrati-ba gaurkotuak ekoizten lagunduko dugu.
- Udal zein lurralde mailako harrera protokoloetan, munduko ondarea zaindu eta babestearen diskurtsoarekin lotu behar dugu euskara, denon hizkuntzak eta kulturak zaindu behar diren diskurtsoarekin hain zuzen.
- Motibazioan eta atxikimenduan gazteentzako ingurune digitalak duen garrantzia kontuan hartuko dugu, bertan euskaraz egin eta bizi ahal izateko espazioak sortuz.

- Motibazio eta atxikimendurako aldagaien bilakaera neurtzeko tresna eta metodologia aurreratuak sortu behar ditugu, tokian tokiko estrategiak diseinatu eta gauzatzeko.
- Emakumeek hizkuntzaren transmisioari eta atxikimenduari egindako ekarpena aitortu eta orokortzeko aukerak identifikatu behar ditugu.
- Kulturak eta sormenak euskaraz gozatzearekin eta komunitate batekiko kide izatearekin dituen inplikazioak aintzat hartuko ditugu, aisialdian ere euskaraz bizitzeko espazioak sortuz eta garatuz.
- Hezkuntzan hizkuntzaren funtzio sozial, komunitario eta emozionala landu behar dugu, esperientzia atseginekin eta aberasgarriekin lotuz.

H.E.5: Gure hizkuntza nazionalarentzat estatus juridiko berria

Euskararen berezko hizkuntza eta hizkuntza nazionalaren izaerari garapen juridiko osoa eman

Hizkuntza-politika berria eraginkortasunez martxan jartzeko ezinbestekoa da euskararen estatus juridiko berri bat izatea, arkitektura berri eta gaurkotua.

Euskara hizkuntza nazional gisa hartuko duen estatus berria eraiki behar dugu horretarako, norbanakoak euskalduntzetik eremuak euskalduntzera jauzi egin ahal izateko bitarteko eta berme juridikoak emango dituen eta askatasun indibidualak babestetik eremu funtzionalak ere indartzen lagunduko duena. Perspektiba indibiduala (hizkuntza-eskubideak aitortuz eta bermatuz) eta perspektiba kolektiboa (hizkuntzaren dimensio soziala) uztartuko dituen paradigma berri eta gaurkotua, euskarak XXI. mendean behar dituen politika publiko aurreratuak martxan jartzeko aterbea emango duena.

Bide honetarako, berezko hizkuntzaren eta hizkuntza nazionalaren izaerari garapen juridiko osoa eman nahi diogu. Euskararen egitura juridikoa moldatu nahi dugu Euskal Herri osoan, desofizializazioarekin amaitzeko egindako aurrerapausoak blindatzeko, urrats gehiago egiteko, hizkuntza hegemonikoen estatus juridiko bera erdiesteko eta hizkuntza-politikaren ildo nagusiak herri gisa erabaki ahal izateko.

Nafarroan, Europako Kontseiluak behin eta berriz salatu duen zatikatze administratiboa amaitzeko bultzatuko dugu, sendotasunez eta irudimenez, zonifikazioak ezarritako mugak gaindituz. Horretarako baldintza objektiboak badaude eta bide ausart bezain burutsua abiatu beharko genuke, kontuan hartuz populazioaren bi heren zonalde mistoan bizi dela eta bertan baldintza objektiboak zein adostasun soziala daudela aldaketak bultzatzeko. Administrazio guztiek dute ardura euskararen normalizazioarekiko, txikienetik handienera.

Euskararen lurralde guztietan eta euskal herritarroi eragiten diguten eskala instituzional guztietan eman behar dira jauziak, arkitektura juridikoari dagokionez: Europako Kontseiluan eta Parlamentuan; Espainiako legedian; EAerako Estatus berrian; EAEko eta Nafarroako araubide zehatzetan.

Ildo estrategiko hauek eramango ditugu aurrera:

- EAEko Euskararen Legeak aldaketak behar ditu norbanakoen hizkuntza eskubideen eredutik eremuak euskalduntzea aukera ere emango duen eskubide kolektiboen eredura joateko.
- Estatus juridiko berria euskararentzat EAEn.
- Nafarroako zatikatze administratiboarekin eta zonifikazioarekin amaitzea. Euskara Nafarroako berezko hizkuntza ofiziala lortzeko bidea egitea.

- Hizkuntza eskakizunen sistemari eta administrazioaren hizkuntza-politikari segurtasun juridikoa emateko eta jauzia hitza edukiz betetzen hasteko, legean aldaketak bultzatuko ditugu.
- Euskara Europar ofiziala izan dadin eta Europako araubideetan hizkuntza-eskubideak berma daitezen, lanean jarraituko dugu.
- Espainiako legedian aldaketak egingo ditugu eta hizkuntza-ikuspegia txertatuko dugu erabaki eta araudietan, esaterako “Estatuaren erakundeen aurrean eleaniztasuna eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko Lege Organikoaren” omnibus lege-proposamena aurrera bultzatuz beste herrietako hizkuntza eta nazioekin elkarlanean.
- Hizkuntza-zuzenbidearen alorreko laborategi, eskola eta prestakuntza-guneak bultzatuko ditugu.
- “Erregresio-ezaren” printzipioa ezartzeko lana egingo dugu araubide juridikoan.

Herri erronkak erdiesten laguntzeko politika zeharkatzailea

Herri erronka hauei erantzuteko ezinbestekoak izango dira hainbat politika zeharkatzaile, herri erronkak lortzea lagunduko dutenak.

- Euskaltzaletasuna eta euskarekiko bulkada komunitarioa berrindartzen lagundu behar du EH Bilduk, eta bere indar mobilizatzaile eta militantea bulkada horren zerbitzuan ere jarri. Horretarako, ordea, euskalgintzaren dinamika sozial indartsua eta beregaina behar da. EH Bilduk dinamika hori elikatu, lagundu eta babestuko du: euskalgintza aktiboa nahi eta behar dugu soka lagun. Harreman sareak sendotzeko unea da, bakoitza bere zeregin eta arduratik, baina garbi izanik elkarrekin topatuko gara.
- Gizarte politika eta ongizate egitura sendoak sortu behar dira (enplegua; etxebizitza; babes soziala...): hizkuntza-politika berriaren oinarri garrantzitsuak dira.
- Herri erronka guztietan berdintasun irizpide oro kontuan izatea ezinbestekoa da. Interseksionalitatea txertatu behar dugu hizkuntza-politikan, euskara ikasteko eta erabiltzeko kolektibo bakoitzak dituen oztopo espezifikoak identifikatu eta soluzioak proposatzeko.
- Herri erronka horien jarraipenerako adierazle sistema berritua pentsatu beharko genuke, bai herri erronka kuantifikatzen saiatzeko, bai jarraipen tresna egoki eta objektiboak izateko.
- Hizkuntza-politika administrazio publiko guztiek egiten dute eta egin behar dute. Eta politika horietan hizkuntza biziberritzeko ikuspegiak txertatu behar dira, modu sistematikoan eta proaktibotasunez.
- Euskararen normalizazioaren aldeko diru sailak edozein politikatan ezar daitezke, diru laguntzetan zein inbertsioetan hizkuntza irizpide argiak ezarrita.
- Hizkuntza-politika zeharlerrokoa eta berdintasunezkoa izan dadin gogoetatu beharra dago. Nola aztertu aurrekontu publikoak hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik; nola prestatu profesional gazteak soziolinguistikan; nola txertatu hizkuntza ikuspegia arau eta erabaki estrategikoetan.

5. Hizkuntza-politika berria gobernatzeko irizpideak

Hizkuntza-politika berriaren herri erronkek eta egitasmoek beren osotasunean exijitzen duen eraldaketa aurrera eramateko baliabide nahikoak behar dira, egitura berri eta berrituak, eta hizkuntza-politika zeharkakotasunez aurrera eramateko antolamendu politikoak. Mailaketa instituzionala eta eskuduntzen araberako hizkuntza-politika alegia, udal, eskualde eta nazio mailako neurriak bereiziko dituen.

Horretarako, gobernantza sistema eta egitura instituzional berria martxan jarriko dugu eta irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Politika publiko berriak eta herri-erronkak trakzionatzeko baliagarriak izango diren egitura berriak sortuko ditugu.
- Herri-erronken araberako antolamenduak eta zuzendaritzak proposatuko ditugu.
- Gobernu-kontseilu eta zuzendaritza-guneetan ikusgarritasuna, erabakimena, beste sailekiko solaskidetzazuzena eta zeharkakotasuna bermatuko dituen antolamendu politiko instituzionala bultzatuko dugu.
- Politika publiko aurreratuak ebidentzia zientifikoan, berrikuntza etengabea eta bikaintasunean oinarritutako metodologiarekin aurrera eramango ditugu.
- Euskalgintzarekin lankidetzan aritzeko kooperazio-esparruak eta gobernantza-sistemak eratuko ditugu.
- Euskal Herri mailako erakundetzea bultzatuko dugu estrategikoak diren esparruetan.
- Eskala instituzional bakoitzean aurrera eramane beharreko estrategiak, politikak eta ekimenak antolatu eta mailakatuko ditugu.
- Euskararen erabilerari dagokionez, eguneroko jarduera eta praktika politiko eta instituzionalean eredu-garritasunez jokatuko dugu.
- Euskara zerbitzuen rola ere birpentsatu eta indartu beharra dago. Herriz herri, mankomunitatez mankomunitate eta eskualdez eskualde, tokiko administrazioa euskalduntzeko, euskarazko kultur eskaintza sustatzeko, bertako merkataritzan euskararen presentzia areagotzeko eta kaleko erabilera sustatu eta prestigiatzeko langile armada txiki bat daukagu eskura. Administrazio zentrala iristen ez den xehetasun maila eta eraginkortasuna lor daiteke udal euskara zerbitzuen bidez. Haien eginbeharra definitu behar da, haien prestakuntza etengabea administrazioekin batera antolatu eta sustatu, eta esperientziak eta kezkek konpartitzeko sareak egonkortu eta lagundu behar dira.

HE5. EUSKARA HIZKUNTZA NAZIONALA

ESTATUS JURIDIKO BERRIA

H3. EKOSISTEMA ELIKATUKO DUEN HIZKUNTZA-AZPIEGITURA BERRIA ERAIKI

XXI. Mendeko "Arantzazu" teknodigital, komunikatibo eta kultural berri bat

Euskarazko kultur-langileen egonkortasuna eta kultur-irizpideak ezarri	HE2. Plaza berriak sortu eta hiztunak trinkotu Gertuko ehun komunitario eta boteregune formaletan euskara nagusi	Aisialdi antolatua % 100 euskaraz	Administrazio euskalduna eta eragilea
EITBren trakzioa eta komunikazio-sistema autozentratua	Arnasguneentzat berarizko lurralde-estrategia	HE1. Ezagutzaren hedapen unibertsalerantz aurrera egin eta hizkuntza-gaitasuna handitu	
Adimen artifizialean potentzia teknologikoa	Hiriguneetan espazio hegemonikoak sortu eta hirian barrena irradiatu	Euskara ikasteko eskubide subjektiboa eta ikasteko denbora aitortua	D eredua eraldatu, hiztun akitboak helburu
Ikus-entzunezkoetan handitze esponentziala	Enpresetan eta merkatalgune handietan betebeharrak ezarri	Harrera-hizkuntza handia antolatu	
Euskararen zorua igo			

H.E.4 ATXIKIMENDUA, MOTIBAZIOA ETA KONTZIENTZIA INDARTU

ehbildu